



mundukide

kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2016

Txostena



www.mundukide.org



Aukerak sortzen jarraituko dugu



Raúl García Díez

Mundukideko Lehendakaria



**minutubat
egunero.org**

XXI. mendean eta globalizazioaren aroan bete-betean gaudela, Estatu Batuetako presidente izateko hauteskundeetan Donald Trump garaile izan zelako gogoratuko da 2016. urtea. European, britainiarrek Europar Batasunetik bereizteko hartutako erabakia gogoratuko dugu. Hala ere, Mundukide Patronatuko lehendakari gisa idazten dudana lehen agur honetan, iragan ekitaldia aztertuta, mundu osoan bizi dugun migrazioaren drama azpimarratu nahi nuke.

Errealitate horren aurrean, Europako agintariek eta Turkiak migrazio itun bat izenpetu zuten, diruaren truke, etorkinak gure lurraldera iristea geldiarazteko. Hala ere, Egeo itsasoko bidea ixtearen ondorioz, Mediterraneo itsasoko bidea da erabiliena. Arazoa da bide hori askoz ere arriskutsuagoa dela; horren erakusgarri, 2016an izan diren 5.079 hildakoak, hau da, 2015ean baino 2.000 gehiago. Nor gogoratzen da pertsona horiez eta beren familiez? Eta zein gogoratzen da greziar irletan hilabetea joan hilabetea etorri ez aztera ez aurrera geratu diren milaka pertsonen –60.000, diotenez–, inork soluziorik eman ez eta dozenaka boluntario eta erakunde zibilen laguntzarekin bizi diren horiez?

Mundukiden uste dugu inork ez dituela bere etxea eta familia apeta hutsez uzten. Hori dela eta Mundukideren misioa pertsonen jatorrizko herrialdetan lan aukera jasangarriak sortzeko baliabideak eskaintzea da. Lana, aldaketaren motorra da, giltza: pertsonen beren bizi baldintzak hobetzeko eta etorkizunera itxaropentsu begiratzeko daukaten giltza.

Urteak dira helburu horrekin lanean ari gara Mozambiken, Brasilen eta Kuban. Iaz, 80.000 pertsona inguru izan ziren Mundukideren proiektuen onuradun. Baina herrialde gehiagotara iritsi nahi dugu, eta pertsona gehiagori aukerak eskaini. Hori dela eta, kooperatiba eta erakundeei laguntza eskertzeaz gain, aurturteko pertsonengana zuzendu nahi dugu. Zugana. Egunean minutu bateko kolaborazioa egin dezazun. Minutu hori mikrokreditu bihurtuko da, ureztatze sistema bat, emakumeen eskola baterako beka bat edo kooperatibekin lanean aritzeko.

Zuretzako minutu bat baino ez da; beste pertsona batentzat, bizitza bat. **www.minutubategunero.org**

Eskerrik asko laguntzeagatik.

www.mundukide.org



MUNDUKIDE FUNDAZIOA
Zarugalde 30
20500 Arrasate-Mondragón
Tel. 943 772010
mundukide@mundukide.org
www.mundukide.org

IFZ: G20673604

L.G.: SS 405-2016

Edizioa: Mundukide Fundazioa



Aurkibidea

Lankidetza kooperatiboa gara	4
Partekatu beharreko altxorra	5
Mundukide izan nahi dut	6
Komunikazioa eta sentsibilizazioa	7
Mundukide osatzen dugu	8
2 lan ildo	9
Mozambique programa	10
Kuba programa	12
Brasil programa	14
Datu ekonomikoak	16



Lankidetzako kooperatiboa gara



Iparralde, hegoalde, mendebalde eta ekialdeko herrialdeen arteko aldeak txikituko dituen garapen eredu baten alde egiten du apustu Mundukidek. Ikuspegi globala ardatz duen eredu, guztiok osotasunaren parte garenean, dagokigun zatia erantzule gara.

Elkartasun unibertsala

Mundukiden parte hartzen dugun lanaren oinarria elkartasuna da, bai ekonomia solidarioan garatutako beste esperientzia batzuekiko eta baita demokrazia sozialaren alde dihardutenekiko ere, bake, justizia eta garapen helburuak partekatuz.

Eraldaketa soziala

Mundukiden pertsona eta jendarte bidezkoagoak lortzea bilatzen dugu, baita norbere buruaren kudeaketa maila altuagoetara iristea ere arlo guztietan, genero harremanak barne; ikuspuntu horretatik, autonomia funtsezkoa da, pertsona, elkarte eta herri bakoitzak erabaki dezan nolako jendartea izan nahi duen.

Lana

Ekintza eraldatzailerik gisa hartzen dugu lana, aldaketa ekintza bezala, garapena lortzeko bide moduan. Mundukiden uste dugu lana bera ere balioa dela, eta kapitalaren gainetik dagoela.



Partekatu beharreko altxorra



50 urteko esperientzia kooperatiboa da partekatzeko daukagun altxorrik preziatuena. Interkooperazio sareak sortzeko lan egiten dugu.

Mundukideren misioa da elkartasuna sustatzea, lan munduaren eskutik herriei zuzendutako elkartasuna, hain zuzen. Horretarako, baliabideak eta Mondragon esperientzia kooperatiboaren jakintza bideratzen ditu Mundukideak, herrien protagonismoan oinarrituz eta haien irakaspenetara irekita egonez. Misio hori aurrera eramateko, Mundukideren xedea da enpresa eta unibertsitate arloko zenbait eragile kooperatibo inplikatzeko. Hegoaldean ez ezik Fundazio inguruko eragile kooperatiboaren artean ere lan sareak bultzatzen dira: enpresak, kooperatibetako teknikariak, ikertzaileak, Mundukideko boluntarioak eta unibertsitateko ikasleak. Herri ekonomiek protagonizatzen dituzten garapen prozesuetan ematen den laguntzak bi oinarri ditu: batetik, epe luzerako konpromisoa; bestetik, ezagutzaren, esperientzien eta ikaskuntzen norabide biko fluxua. Hori guztia aberastasun iturri da murgilduta dauden aktore guztientzat.



Kooperatibak

Eskarmentua eta diru laguntzak



Boluntarioak

Lana eta eskarmentua



MU · Lanki

Ikerketa, formakuntza eta praktikak



GKE

Elkarlana eta babes ekonomikoa



PROGRAMAREN KUDEAKETA



Mundukide izan nahi dut

Pertsona guztion giza eskubideak bermatzeko, aberastasunaren banaketa orekatzeko eta bizi baldintza duinak sortzeko lana egiten duen gizatalde sendoa izan nahi dugu zurekin batera.



Parte hartu

Zatoz, informazio eta sentsibilizazio ekintzetara eta denbora gehiago izanez gero parte hartu lan taldeetan.

Pertsonen duintasunak arduratzen gaituelako ari gara Mundukiden lanean. Zenbat eta talde handiagoa izan, indar handiagoa hartzen du ekimenak.



Informatu eta partekatu

Partekatu itzazu Mundukide-tik jasotzen dituzun berriak, gaur egun informazioa norberak nahi duen bezala erabiltzeko aukera dugu eta.



Egin ekarpena

Mundukideren ekimena atsegin baduzu eta konfiantzazko erakunde batekin munduari ekarpena egin nahi badiozu, hemen duzu aukera puntualki nahi duzun diru kopuruarekin proiektuan parte izateko.



Egin baxkide

Mundukideren ekimena atsegin baduzu eta konfiantzazko erakunde batekin munduari ekarpena egin nahi badiozu, hemen duzu aukera maiztasunez nahi duzun diru kopuruarekin proiektuaren parte izateko.



Mundukiden lan egin

Mundukideko komunitate barruan, besteak beste 14 profesional ari gara egunerokoan lanean fundazioaren helburuak ahalik eta egokien bete ahal izateko. Zeu ere taldekide izan zaitzke.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa



Momentuko ardurez eta elkartearen bizitzaz informatuta eduki nahi zaitugu eta atsegin duzun erara parte har dezazun eskaintzen dizkizugu ekimenak. Zuk ere proposamenen bat baduzu, etorri eta denon artean eramango dugu aurrera.

KAPULANA BAT ZINTZILIK
Miren Amuriza Plaza bertsolariaren eskutik "Kapulana bat zintzilik" ikuskizuna Euskal Herriko 25 herritan aurkeztu da aurtengoan.



MINUTU BAT EGUNERO

"Minutu bat egunero" publiko orokorrari zuzendutako bazkide kanpaina da. Egutegian lan egiten ditugun 480 minutuetatik minutu bakarrari dagokion soldata xedatzea du helburu.

MIKROKREDITUAK

Laboral Kutxako bulegoetan egin dezakezun ekarpena, Marrupako nekazariak mikrokreditu batean bihurtzen da.


KOOPERATIBEN ARTEKO II. LASTERKETA SOLIDARIOA

Elkartasuna eta kirola elkartzen dituen "Kooperatiben arteko II. Lasterketa solidarioa" egin da uztailaren 3an, Aretxabaletako Urkulu urtegiaren inguruan.

ULIMA CEBOLA IKUSUNTZUNEZKOA
Mozambiketik programaren inguruan sortzen diren egoerak eta pasarteak kontatuko dizkigu. 20 minutuko filmak.



ZORIONDU GABONAK, BEHARTSUENEN BIZITZA HOBETUZ
Enpresa eta elkarte mardorxa batek Gabonetan gertukoena zoriontzeko postalak Mundukideko webgunean aukeratzen ditu.





Guztiok osatzen dugu Mundukide

Enpresa eta kooperatiba laguntzaileak



Erakunde laguntzaileak



Erakunde publikoak



Mundukide erakunde hauetako kidea da 2016. urte bukaeran



Eskerrik asko!

2 lan ifdo

Hegoaldeko herri eta komunitateetan zein garapenerako lankidetzako eremuetan dauden behar, lehentasun eta ikuspegi desberdinen aurrean, gure erantzun onena emateko, Mundukidek bi estrategia bereizten ditu lankidetzarako programetan.

1 Mozambique

ESKUALDEKO GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Pertsonen gaitasunak sendotu, garapen pertsonala eta komunitarioa indartzeko.



Azpiegiturak: ureztapen sistemak



Mikrokredituak



Nekazaritza garapena

2 Brasil eta Kuba

GIZARTE EKONOMIA SENDOTZEA

Lidergotza sendoa eta eraldaketa sozialerako bokazioa duten talde egituratuetan, enpresa arloa, antolaketa eta kooperatibagintza indartuko duten programak sustatuz.



Kudeaketa eta kooperatibagintzari buruzko formakuntza



Jaurduera berriak sortzeko laguntza



Enpresa sozialentzako aholkularitza





Mozambique



NAMUNO berria!

Marrupa, Majune, Montepuez eta Balama barrutietaz gain, aurtan lehenengoz Namunoko nekazariak programan parte hartzeko aukera izan dute.



KOOPERANTEAK

Juanjo

Navarro Sanchez
(Marrupa)



Neida

Vila Lago
(Montepuez eta Namuno)



Xacobo

Nogueira Ferreira
(Balama)



Beñat

Arzadun Olaizola
(Majune)



Programaren helburua, tokiko herritarrek errenta sortzeko duten gaitasuna handitzea da. Horretarako berdintasunean eta sostengarritasunean oinarritutako garapen ekonomikoa sustatzen dugu, bertako pertsonak ahalik eta autónomo eta burujabeen izan daitezzen.

Nekazal garapena

Mikrokredituak

Baserritarrek ekoizpena hobetzeko erabiltzen dute mikrokreditu sistema.



Laguntza teknikoak

Bertako nekazaritza erakundeen elkarlanarekin, laguntza teknikoa.



45.940
onuradun

%54 emakumeak

Nekazaritza ekoizpena
2.676.400 €

Nekazaritza inbertsioa
584.548 €

EMAITZAK

Azpiegiturak



Ureztatze sistema

Urte osoko nekazal ekoizpena errazten du, ondorioz biztanleen elikadura hobetuz doa.



Gloria Eusebio (Instruktoea): Ni beste barruti bateko nekazaria naiz eta urteko 4 hilabetetan Mundukiderekin egiten dut lana. Nekazari-tzako produktuen ekoizpenean daukadan esperientzia eta ezagutza iparraldeko nekazariekin elkarbanatzeko.



2016 EKINTZEN EMAITZA

Ekintza	Bitartekoak	Emaitza	Emakumeak
 Ureztatzea	998 ureztatze mikrosistema	1.520 ureztatutako hektarea	
 Aholkularitza tekniko	12 nekazal erakunderekin harremanetan	309 instruktore	42 emakume instruktore
 Nekazaritza ekoizpena	Kultura berrien sustapena: Reno patata, Boer eta Mante-ga babarruna, ohiko baratze-taz gain, sesamoa, anakardoa eta frutarbolak. Intsumoen bitartekari sistema: programa 105.850 eurotan baloratutako insumo bitartekari izan da nekazariekin.	6.862 landutako hektarea; 2.676.400 eurotako ekoizpena	
		9.188 nekazari partehartzaile	4.399 emakume

2016. urtea urte konplikatu izan da Mozambiken. Ustelkeria arazo handiak izan dira; baita problema politiko latzak ere, boterean dagoen alderdiaren eta oposizioaren artean. Horrek guztiak liskar bortitzak ekarri ditu, eta herrialdeko aurrekontuari zuzendutako nazioarteko laguntzak izoztu egin dira. Gertaera horiek ondorio ekonomiko larriak ekarri dituzte; horien artean bat: tokiko monetaren %45eko balio galera. Gure programan ere igarri da herrialdearen egoera orokorraren eragina; hala ere, parte hartzaileek intsumoetan egin duten inbertsioa 7.938.862 MZNkoa izan da (%17 gehiago), 200.730.000 MZNko produkzio baterako; hots, iaz baino %11 gehiago (2.676.400 euro).

HELBURUAK 2017

- Lurra egoki landatzeko aukera ahalik eta nekazari gehieni ematea.
- Produktuen ekoizpena handitzea eta berriekin esperimendatzea
- Programak ezarritako ekoizpen ereduaren jasagarritasuna bermatzea.



Beñat Arzadun Olaizola (Programaren arduraduna): *Programa guztiz integratua dago, herrialdeak dituen lehentasunezko politika, estrategia eta sektoreetako plangintzetan gobernuaren eta gainontzeko erakundeen ahaleginak babestuaz. Azpimarragarria da programarekin garatutako metodologiari esker, aurrekontu eta instalazio oso xumeekin zer nolako nekazal teknologien zabalkuntza egiten ari den nekazarien artean.*



Kuba



Programaren helburu nagusia Kubako beharretara egokitzen diren ekonomia eta produkzio ekimen berriak garatzen laguntzea da. Horretarako eta kultura ekintzailea Kuban zabaltzeko, enpresen antolaketa eta kudeaketaren gaineko formazio eskolak ematen dira.




KOOPERANTEA



**Asier Gastaminza
Santacoloma**
(La habana)

Ekintzaileentzat formazioa
Ekintzailetasun eta kudeaketa alorretan (marketinga, bideragarritasun planak, finantzak, ekoizpena, pertsonen gestioa, kooperatibagintza).



EMAITZAK

Aholkularitza teknikoa

Profesional kubatarrek sortutako nukleoek bitartez eskaintako aholkularitza, martxan dauden kooperatiba, zein ekintza ekonomiko berri zuzenduta.



Daniel Vela (Holguineko nukleoaren koordinatzailea): *“Mundukiderekin elkarlanak beste gauza batzuen artean, ebidentzia argiak utzi dizkigu ekintzaileari laguntzeko “sareak” – baita herrialde eskalan ere – nola antolatu jakiteko. Gradudunentzako ekitaldiak, ondorengo edizioetan izaten duten parte hartzea, eta koordinatzaile, tutore eta ekintzaileen artean “denbora errealean” izaten den dialogoa, berez, prestakuntza esperientzia baliaduna da ildo berean zeregin berriei heltzeko, izan ere, nik neuk uste dut inoizko “praktika komunitate” funtzionalik handi eta arrakastatsuenetakoak direla. Ezagutza garatzeko xedez osatu dira talde sozialak, eta esperientzia praktikoetan oinarritutako hausnarketa partekatzen dute.*



2016 EKINTZEN EMAITZA


Ekintza



**Nukleoak:
Aholkularitza
teknikoa**

Bitartekoak

2 lantalde
(Holguinen 5 kide
eta Guantanamo 4
kide)



Formakuntza

Lidergoari eta
ekintzailetzari buruzko
IX edizioa

Emaitza

67 enpresa
2 udal gobernu
Unibertsitatea
Gaitasun nazionaleko
zentroa

29 ikasle

Emakumea

2 emakume
nukleotan eta
koordinatzaile 1

10 emakumeak

HELBURUAK 2017

- Niquero udalerriko elikadura segurtasuna bermatzeko proiektua. 1.699 bazkidek osatutako 13 kooperatibekin (%15 emakumeak).
- Lidergo eta ekintzaile kurtsoen emaitzak eta Nukleoiei emandako zerbitzua ebua-luatzea.

2016a izan da 2007an programarekin hasitako ekintza nagusiei bukaera emateko urtea. Aurreikusitako emaitzak lortu ondoren, *Lidergo eta ekintzailetza kurtsoa* eta *Nukleoiei zuzendutako aholkularitza zerbitzua* bukaerara iritsi dira. Azukrearen errekonbersio prozesu barruan, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean ehundaka ekintzaile trebatu dira eta ekimen ekonomiko berri ugari sustatu dira irla ekialdean.



Brasil

Helburua, asentamenduetan eta kanpalekuetan bizi diren Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduko (MST) familien garapen sozioekonomikoa bultzatzea da. 2016 an zehar 3 gune geografikotan aritu gara lanean: Cantaquiriguaçu eskualdean (Paraná), Ipar-ekialdean (Sergipe) eta Porto Alegren (Rio Grande Do Sul).



Gazteen formazioa,
kudeaketa eta
ekintzailertzan.



Enpresa sozial berriak
hasteko
aholkularitza



Sortuta dauden
kooperatibak
kudeatzeko
aholkularitza



Emakumeei
babes orokorra
eta laguntza
ekintzailertza arloan



Nekazaritza
ekologikoarentzako
merkaturatze bide
berrien sustapena

KOOPERANTEAK



Asier Elorza Ugarte
(Sergipe)



Iosu Aranzabal Abaitua
(Paraná)



Julio Martinez Arija
(Eroski Koop-eko bazkidea. Rio Grande do Sul)



Jose Luis Lejardi Bernaola
(Rio Grande do Sul)

29.640 onuradun (%55 emakumeak)



Luis Carlos Costa (CEAGRO*ko koordinatzaile nagusia): Mundukiderekin ari garenetik, lan metodologian emandako aurrerapausoa nabaria da, familia asentatuen beharretara hobeto egokituaz. Zehazki, prozesuak eta plangintzak hobetu dira eta hauen jarraipena eta ebaluaketa egiteko baliabideak ere bai. Elkarlananari esker, Emakumeen kolektiboa sortu da eta ekoizpen agroekologikoaren alorrean genero ikuspegia integratu. Produktzio antolaketan eta ekoizpen kataien formazioan asko aurreratu da, sormena eta ekintzailatza soziala berpiztuaz. Etorteko dagoen fase berri honek, gure kooperatibak eta gestoreak kualifikatzeko balio beharko luke horrela garapen jasangarri eta iraunkorra lortuaz.

2016 EKINTZEN EMAITZA

Ekintza	Bitartekoak	Emaita	Emakumea
Kooperatibagintzan aholkularitza	Bertako aholkulari taldeak	Aholkatutako 9 kooperatiba	Emakumeek osatutako 2 erakunde
Kooperatiben hastapenerako aholkularitza	Pertsona ekintzaileak aholkatzeko lantaldea	4 ekimen berri sortu dira	Emakumezkoek sortutako eta zuzendutako 2 ekimen berri
Nekazal aholkularitza	CEAGRO* eta CFAC* elkarteak	4.098 aholkatutako familia	
Formazioa	Kooperatibetako teknikoentzat kurtsoak.	66 pertsona	15 emakume
	Nekazal ekoizleentzat kooperatiba kurtsoak	160 pertsona	61 pertsona
Generoa	Emakumeen eskolako V. edizioa	50 partehartzaile	50 emakume
Nekazal Ekoizpena	"Luta Camponesa" ekoizpen ekologikorako nukleoa	Iazko dinamika mantendu egin dute ECOVIDA osatzen duten 400 familiek. 42 ziurtagiri ekologikorekin eta astean 3 azoketan parte hartuaz.	

HELBURUAK 2017

Hegoaldeko programan:

- Kooperatibetako planifikazio zikloak sendotzea.
- Kooperatiba berrietan plan estrategikorako prozesuak burutzea.
- Portoalegre eta S.Pauloko supermerkatuen komertzializazio esparruak hobetzea.

Iparraldeko programa:

- Enpresa kudeaketa eta ekintzailatzan formazioa eskolak antolatzea.
- "Terra Forte" nekazaritza ekoizpenerako nukleoko 35 teknikorekin sortutako metodologia partekatu eta praktikan jartzea.
- Genero berdintasuna aldarrikatzen duten emakumeen elkarteekin formazio ekintzekin jarraitzea.

2016an eskualde ikuspegia ordezkatuko duen eta nekazal erreformako kooperatibetan zentratuko den estrategia ezartzen hasiak gara. Estrategiaren helburu nagusiak, alde batetik garapen jasangarria bultzatuko duten kooperatibekin konprometitu dauden pertsonen gestio eta kooperazio gaitasunak hobetzea eta bestalde, Kooperatiben gestio eredu propioa sortzea.

*CEAGRO: Centro de desarrollo sostenible y capacitación agroecológica.

*CFAC: Centro comunitário de formación agropecuaria.



Datu ekonomikoak




DIRU SARRERAK	1.650.484€	100%
KOOPERATIBAK	511.731€	31%
ERAKUNDE PUBLIKOAK	963.735€	58%
GGKEak	58.000€	4%
PARTIKULARRAK	75.009€	5%
HEGOALDEAN JASOTAKO LAGUNTZAK	20.001€	1%
BESTELAKOAK	22.007€	1%

GASTUAK	1.629.165€	100%
INTERKOOPERAZIOA GUZTIRA	1.371.874€	84%
INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE	584.548€	36%
INTERKOOPERAZIOA KUBA	149.463€	9%
INTERKOOPERAZIOA BRASIL	394.209€	24%
HERRIALDE BERRIAREN IDENTIFIKAZIOA	12.929€	1%
INTERKOOPERAZIO OROKORRA	10.725€	1%
HITZARTUTAKO PROGRAMAK	220.000€	14%
GASTU OROKORRAK GUZTIRA	257.291€	16%
FONDOEN KAPTAZIOA	38.765€	2%
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	76.471€	5%
KUDEAKETA	142.054€	9%

EMAITZA	21.319€	
----------------	----------------	--

NAZIOARTEKO KOOPERAZIOA



GASTUAK ATALKA



Kontuak LKS Auditores S.L.k a auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena web orrialdeko <https://www.mundukide.org/eu/nortzuk-gara/kontuak-argi/aurrekontuak-kontuak-eta-auditoria-txostenak/2016-2/kontuak/> helbidean daude ikusgai.